Isiltasuna, baina ez ahanztura, frankismoko desagerpen behartuetako biktimen gainean eraiki zen. Senide eta elkarteak izan dira, hamarkadetan zehar, beren gertuko maiteak berreskuratzen eta memoriaren aldarria egiten aritu direnak. Kasu gutxi batzuetan, familiek diktadura garaian exhumatu ahal izan zuten. Baina, batez ere 1978 eta 1980 urteen artean, zailtasun eta muga askorekin, familiarteko mugimendu boteretsu batek senitartekoen gorpuzkinak berreskuratu ahal izan zituen eta duintasunez lurperatu beren herrietan.

Exhumazio goiztiar gisa ezaguna den mugimendu haren 40.urteurrena betetzen den honetan, Nafarroako Gobernuak "Lur azpian" titulu esanguratsua daraman erakusketa prestatu eta bultzatu du. Erakusketa honek 1936ko kolpe militarraren ondoren erail eta desagertutako 2.000 pertsona baino gehiago berreskuratzea posible egin zuten familia eta elkarte haiek gogoratu eta omendu nahi ditu.

Gure inguruan gertatu zena aitortzea eta gogoratzea erreparagarria da modu indibidualean familia bakoitzarentzat. Zalantzarik gabe, hala da gainera, gizarte guztiarentzat memoria iratzartzen ari den garaiotan. Baina, ezin ahaztu, gertatu zena aitortzea eta gogoratzea, batez ere, justiziazko ekintza dela.

Erakusketa honek memoriaren eta biktimen erreparazioaren alde horrenbeste egin duten pertsonen lana aitortu eta balioan jarri nahi du.

El silencio, aunque no el olvido, se cernió sobre las víctimas de desapariciones forzadas del franquismo. Familias y asociaciones han sido, durante décadas, las protagonistas de la recuperación de sus seres queridos y de la reivindicación de su memoria. En unos pocos casos, las familias pudieron exhumar en los años de la dictadura. Pero no fue hasta los años 1978 a 1980 cuando, en un contexto de muchas dificultades y limitaciones, un poderoso movimiento familiar pudo, por fin, recuperar los restos de sus familiares y enterrarlos dignamente en sus respectivas localidades.

"Bajo tierra" es el expresivo título de esta exposición que Gobierno de Navarra ha impulsado con motivo del 40 aniversario de aquel movimiento conocido como las exhumaciones tempranas. Esta exposición recuerda y homenajea a aquellas familias y asociaciones que hicieron posible la recuperación de más de 2.000 personas desaparecidas, asesinadas tras el golpe militar de 1936.

Reconocer y recordar lo que ocurrió en nuestra tierra es reparador para cada familia de forma individual. Lo es también, sin lugar a dudas, para el conjunto de nuestra sociedad en ese despertar de la memoria que se está produciendo. Pero, además, reconocer y recordar lo que ocurrió es, sobre todo y ante todo, un acto de justicia.

Esta exposición quiere reconocer la labor de personas que tanto han hecho por la memoria y la reparación de las víctimas.

**Ana Ollo**
**Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales**
**Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilaria**

**Álvaro Baraibar**
**Director General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos**
**Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia**